# IRAKURRI, ETA ONDO PASA!



IRRIEN LAGUNAK KLUBA

## MARIMOTOTS ETA LARGABISTA

• **Natura**

## Egonaldiak, umore onean

Umorez eta aldarte onean egotea bezalakorik ez dago. Umoreari konpainia ona gehitzen badiogu, ezin hobea izan daiteke plana. Osagai horiek guztiak eta gehiago eskaintzen ditu Zeraingo (Gipuzkoa) Irrien Lagunen aterpetxeak: lagunarte paregabea, ekintza mordoa eta barre egiteko hamaika aukera.

Eskaintza oparoa eta zabala dute lagun talde, familia, ikastetxe zein elkarteentzat. Astean zehar bi edo hiru eguneko egonaldiak egiteko aukera dute ikastetxe eta elkarteek. Zerainen dauden egunetan, hainbat gai lantzen dituzte lagun taldeek, jardueren bi-



Klubeko pertsonaiekin egoten dira bisitariak.

dez: Erdi Aroa, animaliak, birziklatzea, urtaroak, zerbitzuak, industrializazioa, herriak... Taldeak berak erabakitzen du zer landu.

Lagun talde eta familientzat dira asteburuak. Egun-pasak zein egun batzuetako egonaldiak egin daitezke. Aterpean dauden bitartean, bisitak eta askotariko ekintzak egiten dituzte, Irrien Lagunak klubeko pertsonaiek lagunduta: natur ibilbideak; bisita Zeraingo zerrategira, meategira eta baserrietara; irteera Segurara...

2011n zabaldu zuten Irrien Lagunen aterpetxea, eta, geroztik, ikastetxe ugariren bisita izan dute. Familia giroan eta asteburu-pasa ere joan da jendea, eta izan da udako oporretako egun batzuk han igaro dituenik ere. Eskaintza tentagarria iruditzen bazaizue, deitu (0034) 943-80 15 05 telefonora.

## DENBORA-PASAK

### 1. Amaitu eta margotu

Ikaskide baten erretratua egiten hasi da Nerea, baina erdi egina utzi du.

**Amaitu eta margotu falta den erdia.**



### 2. Osatu hitzak

Marrazkilari trebea da Ainhoa. Zer marraztu du?

**Mugitu silabak lekuz, eta osatu hitzak.**




**Erantzunak**

**2.-** Txoria, hodeia eta sugea marraztu ditu.